

Koldo aurrean

Aurreko artikuluetan lez, zuzenak eta erabiliak dirala erakutsiko dot gramatiketan galarazotako sekuentzia batzuk, izenari posposizioak zuzenean lotuta sortuak

Santi Likona

Euskal gramatiketan galazota dago tituluko sekuentzia edo horren antzeko beste batzuk. Esaterako, **Koldo ondoan, Pedro atzean, Alejandro azpian**; edo, oro har, hurrengo formuleari erantzuten deutozan hitz-kateak:

*[Izen bizidun propioak] + [leku esangurako posposiziotzakoak]

Bestelan esateko, posposiziotzakoak (*aurre, atze, ondo, oste...*) ez dagoz zuzen-zuzen generatutarik izen propioai, tartean ezer ez dagoala. Dinoe gramatikariak honetara erabili beharko litzateke zela aitaturiko hitz kateak: **KoldoREN aurrean, KoldoREN ondoan, PedroREN atzean** eta abar. Hau da, sekuentziok ondoko eskemearen erantzunak dira:

[Izen bizidun propioak + genitibo marka (-en)] + [posposiziotzakoak]

Hasteko, esan daidan denbora esanguran badagoala aitaturiko posposiziotzakoak (*aurre, ondo...*) generatutarik, eransterik izen propioai, tartean ez dagoala ezelako atzizkirik. Hori halan dala erakusteko, hona hemen adibide batzuk euskaldunon guztioi-edo erabilten ditugunak:

- **Kristo aurrekoa (ostekoa)** da halako aztarnea

- **San Juan aurrean (ostean)** pattal ibili ginan

- **Franco aurrean (ostean)** hobeto bizi ginan

Honeen parean, eta honeen antzekoak, zenbat-gura sortu neinkez. Hona hemen bi, konparaziorako:

- **Ettxepare aurrean**, ez dakigu ondo zelako euskerea egiten zan

- **Koldo Mitxelena aurreko (osteko)** euskal euskalaritza

Azkenengo esaldia badago laburrago be emoterik:

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan leike ala joan leiteke?

OKER

- * Gaur joan leike mendira, eguraldi ona dago eta.
- * Uria izan leike hurrengo presidente Athleticen.
- * Nor egon leike pozik Euskal Herriko egoeragaz.

ARTEZ

- Gaur joan leiteke mendira, eguraldi ona dago eta.
- Uria izan leiteke hurrengo presidente Athleticen.
- Nor egon leiteke pozik Euskal Herriko egoeragaz.

Oharra: Ahal da esateko leiteke erabili behar litzateke; ahal dau esateko, leike. Dana dala, galduta dago bereizketa hau, ia mendealde osoan.

- **Koldo aurreko (osteko)** euskal hizkuntzalaritza

Baina azken esaldi hau bakarrik erabili leiteke dakigunean zein Koldoren ganean dihardugun, Koldo asko dagoz egon-eta.

Koldoren ganean esandakoa zabaldu leiteke beste edozein izen propiotara (normalean entzute handikoak izaten dira). Egin daigun badogula Andoni izeneko euskal hizkuntzalari ospetsu bat, eta jakin arren zelako deiturak dituan, izen hutsez izendatutuen dogu, normala danetz. Hau kontuan hartuz gero, inoizko baten esan neinke hurrengo esaldia:

- **Andoni aurreko (osteko)** hizkuntzalaritza

Honelako esaldiak garaunduteko ez dogu ezelako debekurik euskerearen beraren aldetik. Izan be, lehenengo eta behin gizartean bertan jazo behar dira kondizino egokiak, gero hizkuntzearen bidez, gure kasuan euskerearen bidez, sortuko baditugu aitaturiko lako edo antzeko esaldiak.

Orain arte *aurre, ondo eta oste* jorratu ditut, eta denbora esanguran jorratu be; ondoren, erakutsiko dot *Alejandro azpian* hitz-katea edo antzekoak be erabilten dira-

la. Adinean gora goazanok behintzat, barru-barruan daukagu ziztaka-edo, *Franco*-ren sasoia. Horregaitik, hurrengo esaldia ondo be ondo adituko da:

- **Franco azpian** batzuk ezitan bizi izan ei ziran

Eta era berean esan leiteke *Alejandro (Magno) azpian*. Baina jorratuten dihardudan sekuentzia motea denbora esanahian ez eze —orain arteko esaldiak— leku esanguran be erabilten da. Jo daigun baserri baten izena Franco dala. Hori dala-eta, arruntaren arrunta egingo jako irakurleari hurrengo esaldia:

- **Franco ganean** patari bat ikusi dot Gane posposizioaren tokian paratuz gero *ondoan, aurrean* edo *atzean* esaldiak segitzen dabe izaten normal-

normalak. *Franco*-ren tokian paratu *Alejandro* edo beste edozein izen propio, eta esaldiak jarraituten dabe izaten lehengoak besteko jatorrak.

Arte posposiziotzakoaren bidez be urte ten deuste adibide batzuek. Egin daigun seme batzuk ditudala txirindulariak, eta Indurain izateko bidean dagozala. Testu inguru honetan ez da bape bitxia honelako esaldia:

- **Indurain artean** bizi naiz

Arte posposiziotzakoaren bidez edozenbat adibide sortu neinkez horrelakoak. Nahikoa da gaurko kirolari ospetsuak edo izandakoak hartutea (Ronaldo, Guerrero...). *Arte*-ren bidezko sekuentzietan izen propioak izen komun bihurtuten dira, igaro egiten dira-eta erreferente bakarreko multzoa adierazotetik beste multzo bat adierazotera ezaugarri jakin batzuk dituana.

Argi-edo geratu da, nik uste, debekaturiko 'Izen bizidun propioak + leku esangurako posposiziotzakoak' eskemea erabili, erabilten dala (gehiago-gitxiago); edo, bestelan esateko, hurrengo edo antzeko sekuentziak: **Koldo aurrean, Franco ostean, Koldo ondoan**.

ANDER LIPUS AKTOREA



«Biziagoa da antzerkia norberaren euskeran»

Izaskun Basterretxea | BILBO

Ander Lipusek 11 bat urte daroaz antzerkigintzan. «18 urte neukazala joan nintzan Madrilera ikastera, eta beti jarraitu izan dot ikasten, baina zorionez, lanean be bai». Txikitatik daki euskeraz: «Amaren sabelean egon nintzanetik». Izatez markinarra da, eta berba egikeran igarten jako. Orain dala lau bat urtetik Bilbon bizi da.

■ **Bizkaieraz egiteko jokena handia daukazu...**

Bai, normalean beti, batuan baino hobeto konpontzen naz eta, naturalago-edo urte ten deust.

■ **Antzerki obretan be bizkaiera sartzen dozu sarri. Txalo taldearen Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona... obran, adibidez, markinarrez egiten dozu zati baten.**

Nik uste dot norberaren euskeragaz biziago, aberatsago, organikoago urten ahal dauala antzerkiak, momentuan bertan gertatzen dan gauza dalako. Antzerkiola Imaginarioa Konpainiagaz —berak sortu eban— *8 olivetti poetiko* lanean be, nire pertsonaiak beti markinarrez egiten dau. Nire asmoa da, ahal dan neurrian behintzat, markinarrez egitea. Baina, beno, horrek ez dau esan gura aktore batek batua menperatu behar ez dauenik, edo beste euskalki batzuk jakin behar ez dituanik.

■ **Bertsotan be ibili zara...**

Madrilera joan nintzanean alde batera itxi behar izan neban, baina bai, ibili nintzan, Mañugaz... eta inoiz txapelak be irabazi genduzan. Gure kulturen, biziteko eran daukagun gauzarik aberasgarrienetakoa da.

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Unai Elorriaga

Lurralde oni eritxon Ardibaso

An, or ta emen egozan, Gangoiti ta Tontormotx izenak ebezan mendi-tantaiak; aratxuago Goizorrotz eta Atxurdin eritxuben txikijaguak; lau mendi onen bitartian eguan, eguraldi onetan ur garden-gardena eukan ibai eder bat, Ibaigarden izena ebana; ibai onen alde bateko ibertzian, egozan Goiketxe ta Beketxe eritxuben basetxe bi, bata baño bestia goratxubago ta alkarrengandik ordu laurden bidian.

Ibaigardenen beste aldetik, Goizorrotz eta Atxurdinen bitarteko zelai eder baten, egozan Basarte ta Solabizkar eritxuben basetxiak alkarren urre samar. Gangoiti mendijaren barrenian eguan beste Basterretxe eritxon basetxe bat.

Gangoiti ta Tontormotxen bitartian eguan Ardilanda eritxon larra edatsu bat, bedarra ugari egoten zan tokija, ta araxe eruaten ebezan egunaro Baketxe, Basarte, ta Solabizkarko artaldiak; Tontormotxen egaletara Goiketxeuak, eta Gangoitijenera Basterretxeuak.

Lau mendi onen bizkarretatik ikusten ziran ikusbidiak, ezin izan leikezan ederraguak: an, or ta emen, gaztañadi, aristi, artadi ta beste zugatz orritsu asko; zugatzazpijetan, ira, giñarra, ota ta bedar, guztijak nastaurik; beste leku batzuketan, bedar garbija eukun landa edatsubak; emetik sasijak, ortik bedar-munak eta bestetik baso txapartxubak; erreka txar-

txar asko Ibaigardengo ura geituten ebena; bide-zior ta burpide asko alde guztijetatik; basetxiak solo-artietan; sagasti ederrak solo egaletan; artalde ta abelgorriak banaturik toki askotan bedarra jaten, eta baserritarrak euren soluetako lanetan.

Zein ikusbide ederrak daukez orrek gauza guztijok ikusten diran mendi-bizkarak!

Lurralde oni eritxon Ardibaso.

'Jaioterri maitia' liburutik jasoa.

EGILEA: KIRIKIÑO.

ARGITALETXEA: Labayru Ikastegia.